

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Adimen-urritasuna dutenentzat iraupen-eskiko Espainiako Txapelketa jokatu da aste honetan Roncalian

Pruden Indurain izan da gaur goizean irabazleei domina emateko ekitaldiaren buru

Jueves, 20 de diciembre de 2012

Erronkariko Mendi Zentroan (Roncalia) jokatu dira astelehen honetan adimen-urritasuna dutenen iraupen-eskiko Espainiako Txapelketa. Adimen-urritasunentzako kirolen Espainiako Federazioak eta Roncaliak antolatu dute txapelketa. Iraupen-eskiko eta egokitutako trebetasuneko kirol-probak 'El Ferial'-eko zirkuituan jokatu dira, Nafarroa, Aragoi, Gaztela eta Leon, EAE eta Murtziako 40 kirolarik parte hartu dute. Txapelketa horiek Foru Komunitatean antolatzen diren lehen aldia da. Nafarroako partaidetza El Molino taldeko kideek osatu dute, eta honako hauek izan dira: Iosu Pitillas, Rubén Pascual, Saioa Iturri, Estefanía Fernández, Amaia Alzueta, M^a Belén Ciriza, Iñigo Michitorea; Damaris Fernández, Aritz Sánchez, Myriam García, Mikel Urdiáin, Adriana Azcona, Guillermo García, Constanza Mercado eta Rebeca García.



Lehiaketako une bat.

Kirol-lehiaketa horretako lehen hiru egunetan (astelehena hilak 17, asteartea hilak 18 eta asteazkena hilak 19) entrenamenduak egin ziren eta prestakuntzarako azken txapelketa ofizialak gaur goizean jokatu dira. Jarraian, garaileei dominak eman zaizkie, eta bertan buru izan da Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari-gerente Pruden Indurain. Modalitate eta proba ezberdinetako irabazleak honako hauek suertatu dira: Ruben Pascual (El Molino taldea) gizonetzkoen 5.000 metrotan; Beatriz Vila (Nuevo Horizonte taldea) emakumezkoen 2.500 metrotan; Mikel Urdiain eta Damaris Fernandez (biak El Molino taldekoak) gizonetzkoen egokitutako 2.100 metrotan eta emakumezkoen egokitutako 1.400 metrotan, hurrenez hurren; Joaquin Fernandez (Atl. Fortius Aspapros) eski kirol-modalitatetako 1.000 metrotan; eta Constanza Mercado (El Molino), kirol-trebetasuneko 600-800 metrotan (erraketak).

Erronkariko Mendi Zentroak (Roncalia) jarduera-denboraldia iragan abenduaren 1ean zabaldu zuen, iraupen-eskiko III. Martxa Zuriarekin. Laster instalazio berberetan iraupen-eskiko Nafarroa eta EAEko

txapelketak jokatu dira; Nafarroako Kirol Jokoak; eta III. `Erronkariko` Neguko Triatloia, beste kirol-proba batzuen artean.

Galería de fotos



Pruden Induráin sarituetako batekin.



Txapelketetako parte-hartzaileak.